

## **1. OBJETIVOS GENERALES:**

- 1) Comprender la información global y específica de mensajes orales y escritos.
- 2) Afianzar la pronunciación, escritura y significado de palabras y frases.
- 3) Reconocer y apreciar la diversidad lingüística de Navarra y de la sociedad en general, valorando esa diversidad como un hecho cultural enriquecedor.
- 4) Comprender y reproducir algunos textos de tradición cultural (trabalenguas, canciones, cuentos, adivinanzas...)
- 5) Tener una actitud positiva y favorable hacia el aprendizaje del euskera.
- 6) Utilizar el euskera como medio de comunicación y valorar el lenguaje oral como un medio de relación con los demás.
- 7) Producir y responder mensajes de forma breve y sencilla: saludar, preguntar, comentario sobre imágenes, etc., empleando las expresiones y el vocabulario básicos del ciclo.
- 8) Valorar el interés y esfuerzo por mejorar y enriquecer las propias producciones lingüísticas, así como la participación en situaciones de comunicación oral de diverso tipo.
- 9) Valorar la actitud de escucha y respeto a los otros, en diálogos y conversaciones colectivas como norma esencial en situaciones comunicativas.
- 10) Comprender y empezar a utilizar frases negativas usuales.
- 11) Comprender y utilizar diferentes preposiciones y adverbios: tiempo, lugar, cantidad, modo..
- 12) Realizar descripciones de personas, animales u objetos conocidos (a nivel oral).
- 13) Comprender y elaborar textos cortos y sencillos a nivel oral y escrito.
- 14) Producir pequeños diálogos (oral y escrito).
- 15) Realizar pequeñas dramatizaciones.

## **2. CONTENIDOS:**

### **BLOQUE 1: La comunicación oral**

#### CONCEPTOS:

- Usos de la lengua en el medio habitual del alumnado a través de diversas formas adecuadas al contexto e intenciones de la comunicación oral: conversación, canciones, frases, etc.
- Estructuración adecuada de oraciones sencillas.
- Relaciones entre los elementos lingüísticos y no lingüísticos que favorecen la comunicación oral.
- Discursos orales procedentes de los medios de comunicación social.

#### PROCEDIMIENTOS:

- Comprensión de mensajes en las diferentes situaciones de la comunicación oral.

- Producción de mensajes orales diversos de manera estructurada, coherente y adecuados al contexto.
- Utilización de elementos lingüísticos y no lingüísticos para una adecuada comunicación oral.
- Reconocimiento e identificación de expresiones enunciadas en Euskara.
- Recogida, organización de la información y planificación de experiencias mediante la lengua oral.

## **BLOQUE 2: La comunicación escrita**

### CONCEPTOS:

- Diferentes usos de la lengua escrita en el medio habitual del alumnado para satisfacer las diversas necesidades comunicativas: frases, ejemplos, dictados, listas, etc.
- Recursos gráficos en la comunicación escrita.
- Elementos lingüísticos y no lingüísticos en la comunicación escrita: imágenes, cómics...
- Diversidad de textos escritos.

### PROCEDIMIENTOS:

- Decodificación y codificación de la lengua escrita.
- Lectura de textos en voz alta empleando la pronunciación, el ritmo y la entonación adecuadas, que denoten la comprensión del contenido.
- Rellenar huecos de frases con el léxico trabajado.
- Hacer crucigramas.
- Lectura silenciosa para recoger y tratar la información.
- Utilización del diccionario como instrumento para facilitar la comprensión y expresión de mensajes escritos.

## **BLOQUE 3: La dimensión artística y lúdica del lenguaje**

### CONCEPTOS:

- Textos literarios orales y escritos: leyendas, cuentos, juegos, canciones, rifas, dichos populares, trabalenguas, etc., como medio de placer, enriquecimiento personal y cultural y como medio para desarrollar la creatividad.
- Cambios de forma y código de textos literarios.

### PROCEDIMIENTOS

- Comprensión de textos literarios orales y escritos.
- Utilización del diccionario para ayudar a la comprensión y producción de textos literarios.

## **BLOQUE 4: Reflexión sobre la propia lengua en contextos de comunicación**

### CONCEPTOS:

- El contexto comunicativo: producción de mensajes orales y escritos de acuerdo a criterios de corrección, cohesión y su función en el discurso.

### PROCEDIMIENTOS:

- Observación y verbalización de regularidades sintácticas y ortográficas en las producciones verbales.
- Uso del diccionario como instrumento de enriquecimiento lingüístico.

ACTITUDES generales para los 4 bloques de contenido:

- Valoración del euskera como medio de comunicación.
- Respeto por las normas de comunicación.
- Actitud crítica ante los mensajes comunicativos que denotan discriminación, reduccionismo, manipulación...
- Interés y respeto por la diversidad lingüística y cultural de Navarra y la sociedad en genera.
- Disposición a usar el lenguaje de forma respetuosa y precisa, evitando en particular estereotipos, vocablos groseros y expresiones ofensivas.

### **3. COMPETENCIAS BÁSICAS**

1. Competencia en comunicación lingüística
2. Competencia matemática
3. Competencia en el conocimiento y la interacción con el mundo físico
4. Tratamiento de la información y competencia digital
5. Competencia social y ciudadana
6. Competencia cultural y artística
7. Competencia para aprender a aprender
8. Autonomía e iniciativa personal

### **4. METODOLOGÍA**

Al considerar el tipo de metodología a aplicar en la enseñanza del Euskara en el modelo A, nos basaremos en la metodología comunicativa, sin desdeñar totalmente algunos aspectos de los métodos estructuralistas; el objetivo fundamental es la comunicación, ya que la lengua es un instrumento que poseemos para representar la realidad y comunicarnos con los demás.

La metodología se orienta al desarrollo general del alumno/a, integrando sus distintas experiencias y aprendizajes, teniendo en cuenta el carácter individualizado de la enseñanza y su adaptación a los distintos ritmos de aprendizaje de cada niño/a.

El educador se esforzará en crear un clima de confianza y afecto en el que los alumnos / as experimentarán el placer y la necesidad de comunicarse. Así mismo, se ofrecerá un modelo de lenguaje rico y correcto ya que la competencia lingüística del niño/a depende de la calidad del lenguaje que oye. Para todo ello se trabajará de la siguiente manera:

- El Euskara será, en la medida de lo posible, el idioma utilizado en el aula, siendo mayor la dificultad para ello en el aula de primero de educación primaria, debido lógicamente al menor nivel lingüístico de estos alumnos, que parten de cero al comienzo del presente curso, debido a que no existe modelo A en Educación Infantil en el centro.
- Se trabajará la comprensión oral y escrita en situaciones lúdicas, a través de la canción, el juego, el dibujo, la dramatización, etc., y de trabajo, a través de la producción y recogida de mensajes orales y escritos, lectura, etc.

Criterios metodológicos:

1. El punto de partida, siempre se fundamentará en los conocimientos que tenga el alumno de la lengua.
2. Se potenciará el uso de la lengua. Las reflexiones sobre la propia lengua se darán con posterioridad.
3. En todos los cursos tendrá prioridad el lenguaje oral y solo se comenzará a trabajar el lenguaje escrito cuando se logre un dominio mínimo de la lengua hablada.
4. Los temas que se trabajen serán cercanos a la experiencia del niño y estarán relacionados con los contextos que ellos ya dominen en castellano, y así poder ir progresivamente dotando de significado en el nuevo código lingüístico. Hay que tener en cuenta que este curso, en cuanto al segundo ciclo de primaria se refiere, se trabajará en torno a un libro de texto (algo que no hemos hecho hasta ahora en el centro, debido a que los libros existentes no nos parecían adecuados).
5. Teniendo en cuenta las características del modelo A (al finalizar la Enseñanza Primaria no dominarán el Euskera), este primer contacto que tienen con la lengua y cultura vasca ha de ser positivo, de forma que se garantice la continuidad en el aprendizaje a tal efecto, acentuaremos los aspectos lúdicos y gratificantes, bien entendido que no siempre y necesariamente a ser así.
6. Funciones, nociones y a veces también los temas, se trabajarán cíclicamente o de forma recurrente, es decir, los mismos contenidos se trabajarán en diferentes momentos del mismo curso o a lo largo de diferentes cursos, con las adaptaciones adecuaciones necesarias.

*\* Este último punto se aplicará fundamentalmente en el primer ciclo, ya que el uso del libro de texto en el segundo ciclo, variará el proceso de enseñanza-aprendizaje utilizado hasta la fecha.*

## **5. ATENCIÓN A LA DIVERSIDAD**

- Adecuar objetivos y contenidos a las posibilidades de cada alumno/a de acuerdo a la evaluación inicial realizada
- Nuestros materiales ofrecen una información claramente estructurada, de forma que los contenidos básicos, aparecen separados de los contenidos que suponen una cierta ampliación
- Los contenidos se desarrollan a través de procedimientos prácticos, pautados para hacer más fácil su seguimiento y reforzados por un claro apoyo gráfico
- Al final de cada unidad se hacen actividades secuenciadas según su dificultad
- Se disponen de profesores de apoyo dentro y fuera del aula
- Se ofrecen actividades y material de refuerzo para trabajar conjuntamente con los padres en casa
- Material manipulable disponible dentro y fuera del aula

## **6. CRITERIOS DE EVALUACIÓN**

### **6.A) CRITERIOS GENERALES**

La evaluación de los procesos de aprendizaje de los alumnos/as será continua y global, para lo cual se propondrán actividades de diverso tipo que vayan verificando los conocimientos adquiridos.

## **6.B) CRITERIOS DE CALIFICACIÓN**

3º De Primaria:

Comprensión y expresión oral y escrita: 25%

Gramática: 30%

Vocabulario: 15%

Actitud, participación y tareas: 30%

4º de Primaria:

Comprensión y expresión oral y escrita: 30%

Gramática: 30%

Vocabulario: 15%

Actitud, participación y tareas: 25%

## **7. ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS**

*Santa Ageda*: salida por el barrio la víspera de *Santa Ageda* (4 de febrero).

## **8. PROGRAMACIONES DE AULA**

### **8.1. CURSOS Y PROFESORAS**

3º de Primaria: Ainhoa Iriarte Oses.

4º de Primaria: Ainhoa Iriarte oses.

### **8.2. MATERIALES**

**3º de Primaria**

- Liburua: Euskara, BENE-BENETAN 2, Zubia-Santillana argitaletxea.
- Lan-koadernoak: Euskara, BENE-BENETAN 2, Zubia-Santillana argitaletxea.
- Actividades complementarias: canciones, juegos didácticos.

**4º de Primaria**

- Liburua: Euskara, BENE-BENETAN 3, Zubia-Santillana argitaletxea.
- Lan-koadernoak: Euskara, BENE-BENETAN 3, Zubia-Santillana argitaletxea.
- Actividades complementarias: canciones, juegos didácticos.

### **8.3. UNIDADES DIDÁCTICAS**

**3º de Primaria**

#### **1. UNITATEA: HANDIA NAIZ**

**TENPORALIZAZIOA:** Irailaren 15etik urriaren 10era.

#### **HELBURUAK**

- Familiaren hiztegia lantzea.

- *Handia naiz* komikiaren elkarrizketa irakurtzea.
- *Urtebetetzea* irakurgaia irakurtzea eta ulertzea.
- *Nor* galdegaia ulertzea.
- *Zaharra-berria* aurkako adjektiboak erabiltzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.
- *Zenbat urte ditu ...?* espresioa erabiltzea
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:
  - Zerbaiten balorazioa egitea.
  - Familiako kideak identifikatzea.
  - Zorionak ematea.
  - Zerbaiten berri ematea.
  - Informazioa eskatzea.
  - Harridura eta atsegina adieraztea.
- *Hezkuntza morala eta zibikoa* zehar lerroa lantzea.

## EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK

Funtzioak eta esamoldeak	-Zerbaiten balorazioa egitea. -Familiako kideak identifikatzea. -Zorionak ematea. -Zerbaiten berri ematea. -Informazioa eskatzea. -Harridura eta atsegina adieraztea. -Zein polita!, Zorionak!, Oso polita da!
Hiztegia	- <b>Familia:</b> anaia, ahizpa, neba-arrebak, urtebetetzea, lehengusua, lehengusina, osaba, urtea, izeba. - <b>Adjektiboak:</b> berria, zaharra.
Gramatika edukiak	- <b>Egiturak:</b> zer?/ nor?/ zenbat?/ nortzuk?/ nolakoa?/ zein? (koloretakoa). - <b>Aditz-formak:</b> da, dira, ditu.
Irakurmena	-Komikia: <i>Handia naiz</i> . -Irakurgaia: <i>Urtebetetzea</i> .
Proposamen orokorra	Haurrek, nork bere aldetik, senideen argazkiekin albuma osa dezakete. Horretarako etxetik ekarriko dituzten argazkiak, kartulinetan itsatsi eta azpian senide bakoitzaren izena eta zer den idatziko dute.
Zehar lerroak	Hezkuntza morala eta zibikoa.

### PROZEDURAZKOAK

- Familiaren hiztegiaren lanketa. Pertsonaiak pintatu eta esaldiak osatu behar dira

- *Handia naiz* komikiaren elkarrizketaren irakurmena. Komikiaren elkarrizketak irakurri, ahoskatzeko hitz zailak nabarmenduz.
- *Urtebetetzea* irakurgaiaren irakurketa eta ulermena.
- *Nor* galdegaiaren ulermena. Idatzi behar da. Galderak egin esaldiak osorik lortzeko.
- *Zaharra-berria* aurkako adjektiboen erabilera.
- Baiezko eta ezezko perpausen ezaguera.
- *Zenbat urte ditu?* espresioaren erabilera.
- Eguneroko beharretan hizkuntz funtzioen erabilera.
- Senideen argazkiekin albumaren lanketa.
- JARRERAZKOAK
- Ahozko komunikazioan argitasunaren eta ozentasunaren errespetua.
- Elkarrizketa arauen errespetua.
- Hizkuntzaren oinarrizko arauetako errespetua eta jarrera positiboa.
- Hezkuntza morala eta zibikoa duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.

### **OINARRIZKO KONPETENTZIAK**

Komunikatzeko konpetentzia(1.)

Ikasten eta pentsatzen ikasi (7.)

### **EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK**

- Familiaren hiztegia lantzen du.
- *Nor* galdegaia ulertzen du.
- *Zaharra-berria* aurkako adjektiboak erabiltzen ditu.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzen ditu.

## **2. UNITATEA: AI ENE, LAPURRAK!**

**TENPORALIZAZIOA:** urriaren 13tik 31ra.

### **HELBURUAK**

- Etxearen hiztegia lantzea.
- *Ai ene, lapurrak!* komikiaren elkarrizketa irakurtzea.
- *Tresna berriak* irakurgaia irakurtzea eta ulertzea.
- *Nongoa* galdegaia ulertzea.
- *Piztuta-itzalita, beterik-hutsik* aurkako adjektiboak erabiltzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.
- *Aginduak* bereiztea eta zuzen erabiltzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:
  - Eskaera egitea.
  - Agindua ematea.
  - Agurtzea.
  - Elkarrizketari hasiera ematea.
  - Harridura adieraztea.
  - Abisua ematea.
  - Zerbaiten balorazioa egitea.

- *Giza eskubide* zehar lerroa lantzea.

## EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK

Funtzioak eta esamoldeak	-Eskaera egitea. -Agindua ematea. -Agurtzea. -Elkarrizketari hasiera ematea. -Harridura adieraztea. -Abisua ematea. -Zerbaiten balorazioa egitea. -Egunon!, Lapurrak!, Aurrera!, Isilik!
Hiztegia	-Etxea: teilatua, balkoia, giltza, tximinia, gaztelua, argia, harraska, hozkailua, garbigailua, labea, sukaldea. - <b>Adjektiboak</b> : hutsik, beterik, piztuta, itzalita, txikia, handia.
Gramatika edukiak	- <b>Egiturak</b> : nongo?/ non?/ nola?/ nolakoa?/ zein? (koloretakoa) - <b>Aditz-formak</b> : zaio, da, dago, piztu, itzali, zabaldu, itxi.
Irakurmena	-Komikia: <i>Ai ene, lapurrak!</i> -Irakurgaia: <i>Tresna berriak.</i> -Bertsoak: <i>Krik-krak.</i>
Proposamen orokorra	Sukaldeko maketa.
Zehar lerroak	Giza eskubide hezkuntza

### PROZEDURAZKOAK

- Etxearen hiztegiaren lanketa. Irudiak osatu ahala idatzi behar da.
- *Ai ene, lapurrak!* komikiaren elkarrizketaren irakurmena.
- *Tresna berriak* irakurgaiaren irakurketa eta ulermena.
- *Nongoa* galdegaiaren ulermena. Giltza aukeratu eta nongoa den idatzi behar da.
- *Piztuta-itzalita, beterik-hutsik* aurkako adjektiboen erabilera. Galderak egin, esaldi oso batez erantzuteko eskatuz.
- Baiezko eta ezezko perpausen ezaguera.
- *Aginduen* erabilera. Elkarrizketak idatzi behar dira.
- Eguneroko beharretan hizkuntz funtzioen erabilera.
- Sukaldeko maketa egin.

### JARRERAZKOAK

- Testuen balorazioa.
- Besteen ekarpenen eta iritzien aurrean errespetua eta begirunea agertzea.

- Ahozko komunikazio egoeretan parte hartzeko gustua eta zaletasuna bultzatzea.
- Giza eskubide hezkuntza duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.

### **OINARRIZKO KONPETENTZIAK**

Komunikatzeko konpetentzia(1.)

Kultura humanistikoan eta artistikoan konpetentzia (6.)

Ikasten eta pentsatzen ikasi (7.)

### **EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK**

- Etxearen hiztegia lantzen du.
- *Nongoa* galdegaia ulertzen du.
- *Piztuta-itzalita, beterik-hutsik* aurkako adjektiboak erabiltzen ditu.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzen ditu.
- *Aginduak* erabiltzen ditu.

### **3. UNITATEA: ZILIPURDIKA**

**TENPORALIZAZIOA:** azaroaren 3tik 21era.

#### **HELBURUAK**

- Animalien hiztegia lantzea.
- *Zilipurdika* komikiaren elkarrizketa irakurtzea
- *Norekin, nondik-nora* galdegaiak ulertzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.
- *Barruan-kanpoan, gainean-azpian* kontzeptuak erabiltzea.
- *Da / du / daude* aditzak bereiztea eta zuzen erabiltzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:
  - Elkarrizketari hasiera ematen jakitea.
  - Zerbaiten informazioa ematea.
  - Kezka edo beldurra adieraztea.
  - Poza eta haserrea adieraztea.
- *Astoa* kanta buruz ikastea.
- *Ingurugiro* zehar lerroa lantzea.

#### **EDUKIAK**

##### **KONTZEPTUZKOAK**

Funtzioak eta esamoldeak	-Elkarrizketari hasiera ematen jakitea. -Zerbaiten informazioa ematea. -Kezka edo beldurra adieraztea. -Poza eta haserrea adieraztea. -Hona hemen..., Lasai!, Sudur punta, Aiba!
Hiztegia	- <b>Animaliak:</b> tximinoa, lehoia, elefantea, tigrea, balea, hartza, sugea, jirafa, kaiola, pailazoa, zabua, soka, pausoa. - <b>Adjektiboak:</b> bakarrik.

	<b>-Kontzeptuak:</b> beldurrez.
Gramatika edukiak	<b>-Egiturak:</b> nondik?/ nora?/ norekin?/ nola?/ zer?/ non?/ zenbat? <b>-Aditz-formak:</b> da, du, daude, dantza, igeri, korrika, lo, egin.
Irakurmena	-Komikia: <i>Zilipurdika</i> . -Kanta: <i>Astoa</i> .
Proposamen orokorra	Zirko-funtzioa egin dezakete.
Zehar lerroak	Ingurugiro hezkuntza.

### PROZEDURAZKOAK

- Animalien hiztegiaren lanketa. Zenbakiak eta animaliak kontutan harturik, esaldiak idatziko dituzte.
- *Zilipurdika* komikiaren elkarrizketaren irakurmena.
- *Norekin, nondik-nora* galdegaien ulermena. Ariketen aginduak irakurri eta egin behar dena azaldu.
- Baiezko eta ezezko perpausen ezaguera.
- *Barruan-kanpoan, gainean-azpian* kontzeptuen erabilera. Galderak egin esaldia osorik lortzeko.
- *Da / du / daude* aditzen erabilera. Pertsonaia bakoitza zer den eta zer duen idatziko dute hurrek.
- Eguneroko beharretan hizkuntz funtzioen erabilera.
- *Astoa* kantaren memorizazioa.

### JARRERAZKOAK

- Ahozko komunikazio egoeretan parte hartzeko gustua eta zaletasuna bultzatzea.
- Besteen ekarpenen eta iritzien aurrean errespetua, begirunea eta jarrera irekia erakustea.
- Ahozkoak ez diren mezuak ulertzeko eta sortzeko zaletasuna piztea.
- Ingurugiro hezkuntza duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.

### OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Komunikatzeko konpetentzia(1.)

Kultura humanistikoan eta artistikoan konpetentzia (6.)

Ikasten eta pentsatzen ikasi (7.)

### EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Animalien hiztegia lantzen du.
- *Norekin, nondik-nora* galdegaiak ulertzen ditu.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzen ditu.
- *Barruan-kanpoan, gainean-azpian* kontzeptuak erabiltzen ditu.
- *Da / du / daude* aditzak bereizten eta zuzen erabiltzen ditu.
- *Astoa* kanta buruz ikasten du.

#### 4. UNITATEA: JAN ETA JAN

**TENPORALIZAZIOA:** azaroaren 24tik abenduaren 19ra.

#### HELBURUAK

- Janarien hiztegia lantzea.
- *Jan eta jan* komikiaren elkarrizketa irakurtzea.
- *Telefonoz* elkarrizketa irakurtzea eta ulertzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.
- *Gustatzen zaio? Erosten ari da, Nork ematen du? eta Non bizi da?* espresioak egunero erabiltzea.
- *Gosaldu – bazkaldu – afaldu* aditzak bereiztea eta *ari izan* aditzarekin zuzen erabiltzea.
- Jolasaren arauak ulertzea eta jolastea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:
  - Helburua adieraztea.
  - Atsegina adieraztea.
  - Gaitzespena / Onespina adieraztea.
  - Zerbaiten berri ematea.
  - Zerbaiten informazioa ematea.
  - Harridura adieraztea.
- *Asmatu* kanta buruz ikastea.
- Kontsumo hezkuntza zehar lerroa lantzea.

#### EDUKIAK

#### KONTZEPTUZKOAK

Funtzioak eta esamoldeak	-Helburua adieraztea. -Atsegina adieraztea. -Gaitzespena/Onespina adieraztea. -Zerbaiten berri ematea. -Zerbaiten informazioa ematea. -Harridura adieraztea. -Hau gozoa!, Bazkaltzera!, Ez dut nahi!
Hiztegia	- <b>Janariak:</b> txorizoa, odolkiak, eztia, gosaria, bazkaria, afaria, askaria, behia, txerria, oiloa, erlea, oilarra, urdaiazpikoa.
Gramatika edukiak	- <b>Egiturak:</b> zertarako?/ nork?/ non?/ zertan?/ zein? koloretakoa. - <b>Aditz-formak:</b> erosten, gosaltzen, bazkaltzen, afaltzen... ari da. Zara, bizi da /dira, gustatzen zait/zaizu, egiten du.
Irakurmena	-Komikia: <i>Jan eta jan</i> . -Kanta: <i>Asmatu</i> .
Proposamen orokorra	Horma-irudia.
Zehar lerroak	Kontsumo hezkuntza

## PROZEDURAZKOAK

- Janarien hiztegiaren lanketa.
- *Jan eta jan* komikiaren elkarrizketaren irakurmena.
- *Telefonoz* elkarrizketaren irakurketa eta ulermena.
- Baiezko eta ezezko perpausen ezaguera. Umeei, bai/ez erantzun ondoren, animalia bakoitzak nola egiten duen idatzi behar dutela azaldu.
- *Gustatzen zaio?, Erosten ari da, Nork ematen du?, Non bizi da?* espresioen erabilera. Ariketaren aginduak irakurri ondoren, pertsonaia bakoitzak esaten duena irakurri, eta esan umeei idazteko ea pertsonaia horri aurrean duen janaria gustatzen zaion ala ez.
- *Gosaldu-bazkaldu-afaldu* aditzen erabilera. Janariak ikusi ondoren, zertarako diren idatzi behar dute.
- Eguneroko beharretan hizkuntz funtzioen erabilera.
- Horma-irudia egin.

## JARRERAZKOAK

- Atsedenezko irakurgaiekiko interesa eta gustua bultzatzea.
- Taldeko elkarrizketetan arauetikiko errespetua erakustea.
- Ahozko hizkuntza aberasten duten keinu, mimika eta abar erabiltzeko gustua eta zaletasuna erakustea.
- Kontsumo hezkuntza duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.

## **01NARRIZKO KONPETENTZIAK**

Komunikatzeko konpetentzia(1.)

Ikasten eta pentsatzen ikasi (7.)

## **EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK**

- Janarien hiztegia lantzen du.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzen ditu.
- *Gosaldu-bazkaldu-afaldu* aditzak bereizten eta zuzen erabiltzen ditu.

## **5. UNITATEA: POTOLO HORI!**

**TENPORALIZAZIOA:** urtarrilaren 8tik 30era.

### **HELBURUAK**

- Gorputzaren hiztegia lantzea.
- *Potolo hori!* komikiaren elkarrizketa irakurtzea.
- *Zertara* galdegaia ulertzea.
- *Lodia/argala* aurkako adjektiboak erabiltzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.
- Zenbaki ordinalak: *lehena, bigarrena, hirugarrena...azkena* irakurtzea eta idaztea.
- Norberaren deskribapena, galderen bidez, egitea.
- Aditzak bereiztea eta zuzen erabiltzea.
- Gurutzegramaren aginduak ulertzea eta jolastea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:

- Helburua adieraztea.
  - Gaitzespena / Onespena adieraztea.
  - Zerbaiten berri ematea.
  - Zerbaiten informazioa ematea.
  - Harridura adieraztea.
- Osasun hezkuntza zehar lerroa lantzea.

## EDUKIAK

### KOTZEPTUAZKOAK

Funtzioak eta esamoldeak	-Helburua adieraztea. -Gaitzespena/Onespena adieraztea. -Zerbaiten berri ematea. -Zerbaiten informazioa ematea. -Harridura adieraztea -Potolo hori!, Nor da azkena?
Hiztegia	- <b>Gorputza:</b> betaurrekoak, termometroa, hortzeskubila, erizaina, medikua, eskuzapia, orrazia, eskubila, xaboa, sukarra, pisua. - <b>Zenbaki ordinalak:</b> lehena, bigarrena, hirugarrena, laugarrena...azkena. - <b>Adjektiboak:</b> lodia-argala.
Gramatika edukiak	- <b>Egiturak:</b> zertara?/ zer/nor?/ nolakoa?/ zertarako?/ zein koloretakoa?/ zenbat?/ non?. - <b>Aditz-formak:</b> garbitu/tzeko/tzera, lehortu/tzeko/tzera, orraztu/teko/tera, txiza egitera, du/ditu, naiz/zara/da, behar du.
Irakurmena	-Komikia: <i>Potolo hori!</i> -Kanta: <i>Eskuko atzamarrak.</i>
Proposamen orokorra	Datu pertsonalak betetzea.
Zehar lerroak	Osasun hezkuntza.

### PROZEDURAZKOAK

- Gorputzaren hiztegiaren lanketa.
- *Potolo hori!* komikiaren elkarrizketaren irakurmena.
- *Zertara* galdegaiaren ulermena. Eskatu umeei pertsonaia bakoitza komunera zertara doan idazteko.
- *Lodia-argala* aurkako adjektiboen erabilera.
- Baiezko eta ezezko perpausen ezaguera.
- Zenbaki ordinalen irakurketa eta idazketa. Ariketaren aginduak irakurri eta, ordinala kontutan izanik, eskatu umeei animalien izenak idazteko.
- Aditzen erabilera.
- Norberaren deskribapena.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioen erabilera.
- *Eskuko atzamarrak* kantaren memorizazioa.

- Norberaren datuak osatzea.

#### JARRERAZKOAK

- Hizkuntzaren sorkuntzarako ahalmenak bereganatzeko zaletasuna bultzatzea.
- Oinarrizko hiztegiaren erabilpenean zehaztasuna eta propietatea erakustea.
- Talde lanetan parte hartzeko zaletasuna eta jarrera positiboa erakustea.
- Osasun hezkuntza duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.

#### OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Komunikatzeko konpetentzia(1.)

Konpetentzia matematikoa (2.)

Ikasten eta pentsatzen ikasi (7.)

#### EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Gorputzaren hiztegia lantzen du.
- *Zertara* galdegaia ulertzen du.
- *Lodia-argala* aurkako adjektiboak erabiltzen ditu.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzen ditu.
- Zenbaki ordinalak *1etik 4ra* irakurtzen eta idazten ditu.

#### 6. UNITATEA: TIK-TAK ORDUA!

**TENPORALIZAZIOA:** otsailaren 2tik 20ra.

#### HELBURUAK

- Eguraldiaren hiztegia lantzea.
- Orduak ezagutu eta erabiltzea
- *Tik-tak ordua!* komikiaren elkarrizketa irakurtzea.
- *Larunbatean* irakurgaia irakurtzea eta ulertzea.
- *Nora-zertara* galdegaiak ulertzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.
- *Zer ordu da? Zein ordutan? Zer behar du?* espresioak egunero erabiltzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:
  - Helburua adieraztea.
  - Aholkua eskatzea.
  - Iradokizuna adieraztea.
  - Zerbaiten berri ematea.
  - Zerbaiten informazioa eskatzea.
  - Agurtzea.
  - Ziurtasuna adieraztea.
- Hezkuntza morala eta zibikoa zehar lerroa lantzea.

#### EDUKIAK

#### KONTZEPTUZKOAK

Funtzioak eta esamoldeak	-Helburua adieraztea. -Aholkua eskatzea.
--------------------------	---

	-Iradokizuna adieraztea. -Zerbaiten berri ematea. -Zerbaiten informazioa eskatzea. -Agurtzea. -Ziurtasuna adieraztea. -Mesedez, zer ordu da?, Bihar arte!
Hiztegia	- <b>Asteko egunak</b> : astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata, igandea. - <b>Orduak</b> : ordu bata, ordu-biak, hirurak, lauak, bostak, seiak, zazpiak, zortziak.
Gramatika edukiak	- <b>Egiturak</b> : zertara?/zer?/ nora?. - <b>Aditz-formak</b> : du, doa, dira, lo egitera, orraztera, garbitzera.
Irakurmena	-Komikia: <i>Tik-tak ordua!</i> -Kanta: <i>Alferraren astea.</i> -Irakurgaia: <i>Larunbatean.</i> -Agenda.
Proposamen orokorra	Ordutegia.
Zehar lerroak	Hezkuntza morala eta zibikoa.

#### PROZEDURAZKOAK

- Eguraldiaren hiztegiaren lanketa.
- Orduen ezaguera eta erabilera. Erlojuak ikusi ondoren, zer ordu den idazteko eskatu.
- *Tik-tak ordua!* komikiaren elkarrizketaren irakurmena.
- *Larunbatean* irakurgaiaren irakurketa eta ulermena.
- *Nora, zertara* galdegaien ulermena. Pertsonaiak doazen tokiarekin lotu ondoren, eskatu umeei galderari dagokion erantzuna idazteko.
- Baiezko eta ezezko perpausen ezaguera.
- *Zer ordu da?, Zein ordutan?, Zer behar du?* espresioen erabilera. Pertsonaien erlojuak ikusi ondoren, bakoitzean zer ordu den idatzi behar dute.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioen erabilera.
- Gelako ordutegia egin.

#### JARRERAZKOAK

- Hiztegiaren balorazioa informazio iturri bezala.
- Hizkuntzaren oinarriko arauen onespina.
- Aurkezten diren lanetan argitasuna eta txukuntasuna erakustea.
- Hezkuntza morala eta zibikoa duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.

#### OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Komunikatzeko konpetentzia(1.)

Konpetentzia matematikoa (2.)

Kultura humanistikoan eta artistikoan kompetentzia (6.)  
Ikasten eta pentsatzen ikasi (7.)

### EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Eguraldiaren hiztegia lantzen du.
- Orduak ezagutu eta erabiltzen ditu "Zer ordu da?" galderari erantzuna emanaz.
- *Nora, zertara* galdegaiak ulertzen ditu.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzen ditu.

### 7. UNITATEA: JAIALDIA

**TENPORALIZAZIOA:** Otsailaren 23tik martxoaren 18ra.

#### HELBURUAK

- Eskolatik kanporen hiztegia lantzea.
- *Jaialdia* komikiaren elkarrizketa irakurtzea.
- *Dantza-txapelketa* irakurgaia irakurtzea eta ulertzea.
- *Norekin, zertara* galdegaiak ulertzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.
- Zenbaki ordinalak: *lehena ... zazpigarrena* irakurtzea eta idaztea.
- Koloreak bereiztea eta margotzeko erabiltzea.
- *Jotzen du, Zer egin du?* espresioak erabiltzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:
  - Zerbaiten berri ematea.
  - Kezka adieraztea.
  - Helburua adieraztea.
  - Iragarki sinpleak egiten jakitea.
- Hezkuntza morala eta zibikoa zehar lerroa lantzea

#### EDUKIAK

##### KONTZEPTUZKOAK

Funtzioak eta esamoldeak	-Zerbaiten berri ematea. -Kezka adieraztea. -Helburua adieraztea. -Iragarki sinpleak egiten jakitea. -Eta orain zer?, Bai hori!, Beste bat!
Hiztegia	- <b>Eskolatik kanpo:</b> gitarra, danborra, tutua, biolina, pianoa, zinema, teatroa, kontzertua. - <b>Asteko egunak.</b> - <b>Zenbakiak:</b> lehena .... zazpigarrena. - <b>Orduak:</b> bostetan, zortzietan, seietan, hamarretan.
Gramatika edukiak	- <b>Egiturak:</b> zertan?/ norekin?/ zertara?/ zer?/ non?/ zein... (koloretakoa)? (egunean) (ordutan). - <b>Aditz-formak:</b> doa, doaz, kantatzen..., dantzatzen..., pintatzen..., ikasten..., ari naiz, ari

	dira, egin..., jotzen...du, falta... zaio/zait.
Irakurmena	-Komikia:Jaialdia. -Irakurgaia: Dantza-txapelketa.
Zehar lerroak	Hezkuntza morala eta zibikoa.

#### PROZEDURAZKOAK

- Eskolatik kanpo hiztegiaren lanketa.
- *Jaialdia* komikiaren elkarrizketaren irakurmena.
- *Dantza-txapelketa* irakurgaiaren irakurketa eta ulermena.
- *Norekin, zertara* galdegaien ulermena.
- Baiezko eta ezezko perpausen ezaguera.
- Zenbaki ordinalen irakurketa eta idazketa. Asteko egunak buruz ikasi behar dira eta ordenan idatzi.
- *Jotzen du, Zer egin du?* espresioen erabilera.
- Eguneroko beharretan hizkuntz funtzioen erabilera.

#### JARRERAZKOAK

- Irakurketa eta idazketaren balorazioa dibertsio bide eta atsegin iturri bezala.
- Komunikazio egoeretan parte hartzeko joera eta zaletasuna.
- Pertsonen deskribapenak egiterakoan arreta eta jakin-mina.
- Hezkuntza morala eta zibikoa duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.

#### **OINARRIZKO KONPETENTZIAK**

Komunikatzeko konpetentzia(1.)

Konpetentzia matematikoa (2.)

Kultura humanistikoan eta artistikoan konpetentzia (6.)

Ikasten eta pentsatzen ikasi (7.)

#### **EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK**

- Eskolatik kanporen hiztegia lantzen du.
- *Norekin, zertara* galdegaiak ulertzen ditu.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzen ditu.
- Zenbaki ordinalak *1etik 7ra* irakurtzen eta idazten ditu.

#### **8. UNITATEA: UMM! HAU GOXOA!**

**TENPORALIZAZIOA:** martxoaren 23tik apirilaren 30era.

#### **HELBURUAK**

- Zuhaitzak eta fruitu lehorren hiztegia lantzea.
- *Umm! Hau goxoa!* komikiaren elkarrizketa irakurtzea.
- *Mendian* irakurgaia irakurtzea eta ulertzea.
- *Norentzat* galdegaia ulertzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.
- *Gustatzen zaizkio?* espresioa egunero erabiltzea.
- *Igotzen-jaisten* kontrako aditzak bereiztea eta zuzen erabiltzea.
- Hazi baten prozesua ordenatzea.

- Jolasaren arauak ulertzea eta jolastea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:
  - Atsegina adieraztea.
  - Zerbaiten informazioa ematea.
  - Zerbaiten informazioa eskatzea.
  - Elkar ekintzaren proposamena egitea.
  - Harridura adieraztea.
- Kontsumo hezkuntza zehar lerroa lantzea.

## EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK

Funtzioak eta esamoldeak	-Atsegina adieraztea. -Zerbaiten informazioa ematea. -Zerbaiten informazioa eskatzea. -Elkar ekintzaren proposamena egitea. -Harridura adieraztea. -Zein polita!, Zotz egin, Hau goxoa!
Hiztegia	- <b>Zuhaitzak</b> : hostoak, adarrak, enborra, belarra, sustraiak, loreak. - <b>Fruitu lehorrak</b> : gaztainak, urrak, intxaurrak, pikuak, pipak.
Gramatika edukiak	- <b>Egiturak</b> :zer?/ zertan?/ nora?/ norentzat?. - <b>Aditz-formak</b> :zaio/ez, zaizkio/ez, dira, hartu du/ditu, igotzen..., jaisten..., ... ari da/dira.
Irakurmena	-Komikia: <i>Umm! Hau goxoa!</i> -Irakurgaia: <i>Mendian.</i> -Kanta: <i>Aldapeko</i>
Zehar lerroak	Kontsumo hezkuntza.

### PROZEDURAZKOAK

- Zuhaitzak eta fruitu lehorren hiztegiaren lanketa.
- *Umm! Hau goxoa!* komikiaren elkarrizketaren irakurmena.
- *Mendian* irakurgaiaren irakurketa eta ulermena.
- *Norentzat* galdegaiaren ulermena.
- Baiezko eta ezezko perpausen ezaguera.
- *Gustatzen zaizkio?* espresioaren erabilera.
- *Igotzen-jaisten* kontrako aditzen erabilera.
- Hasi baten prozesuaren ordenapena.
- Jolasaren arauen ulermena.
- Eguneroko beharretan hizkuntz funtzioen erabilera.
- Hormirudi handi bat egin: zuhaitza.

### JARRERAZKOAK

- Azalpenetan argitasunaren eta ordenaren balorazioa.

- Ikasleak sorkuntza propioetan, bai ahozko eta bai idatzizkoetan, gauzak ongi egiten saiatzea.
- Hizkuntzaren oinarriko arauetiko errespetua eta jarrera positiboa izatea.
- Kontsumo hezkuntza duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.

### **ONARRIZKO KONPETENTZIAK**

Komunikatzeko konpetentzia(1.)

Kultura humanistikoan eta artistikoan konpetentzia (6.)

Ikasten eta pentsatzen ikasi (7.)

### **EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK**

- Zuhaitzak eta fruitu lehorren hiztegia lantzen du.
- *Norentzat* galdegaia ulertzen du.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzen ditu.

## **9. UNITATEA: EZETZ EZAGUTU!**

**TENPORALIZAZIOA:** maiatzaren 4tik 22ra.

### **HELBURUAK**

- Ogibideen hiztegia lantzea.
- *Ezetz ezagutu!* komikiaren elkarrizketa irakurtzea.
- *Zerez, nondik-nora, noientzat* galdegaia ulertzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.
- *Behar du, Zer dute* espresioak egunero erabiltzea
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:
  - Iradokizunak adieraztea.
  - Zerbaiten berri ematea.
  - Informazioa eskatzea.
  - Informazioa ematea.
- Giza eskubide hezkuntza zehar lerroa lantzea.

### **EDUKIAK**

#### **KONTZEPTUZKOAK**

Funtzioak eta esamoldeak	-Iradokizunak adieraztea. -Zerbaiten berri ematea. -Informazioa eskatzea. -Informazioa ematea. -Bai zera!, Asmatu, Ezetz ezagutu?
Hiztegia	- <b>Ogibideak:</b> suhiltzailea, postaria, mekanikaria, andereñoa, pilotua, pilotaria, arotza, mangera, gutuna, bihurkina, klariona, pilota, mailua, aroztegia.
Gramatika edukiak	- <b>Egiturak:</b> zer?/ noren?/ zerez?/ nondik?/ nora?/ noientzat. - <b>Aditz-formak:</b> da, dago, dute, doa, behar... du.

Irakurmena	-Komikia:Ezetz ezagutu! -Kanta:Arrotza
Zehar lerroak	Giza eskubide hezkuntza.

#### PROZEDURAZKOAK

- Ogibideen hiztegiaren lanketa. Hurrek, jantziak ikusi eta ogibideak kontutan izanik, norenak diren idatzi behar dute. Gero jantziak nahi duten koloreaz pintatuko dituzte.
- *Ezetz ezagutu!* komikiaren elkarrizketaren irakurmena.
- *Zerez* galdegaiaren ulermena. Puzzle zatiez lagundurik, esaldiak ordenan idatziko dituzte.
- *Nondik-nora* galdegaiaren ulermena. Bideak pintatu eta esaldiak idatzi behar dira.
- *Norentzat* galdegaiaren ulermena. Zenbakiei jarraituz, bideak pintatu eta erantzunak ahoz eman behar dira.
- Baiezko eta ezezko perpausen ezaguera.
- *Behar du, Zer dute* espresioen erabilera. Erantzunak idatzi behar dira. Orrialdean azaltzen diren pertsonaiekin aurreko ariketako galdera bera egin eta esaldi oso batez erantzuteko eskatu.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioen erabilera.

#### JARRERAZKOAK

- Irakurgaiari dagokion taldeko komentarioan parte hartzeko zaletasuna bultzatzea.
- Hizkuntza idatziaren bideak urratzeko interesa piztea era guztietako baliabideetan oinarrituz.
- Ahozko literaturako testuekiko zaletasuna eta arreta bultzatzea.
- Giza eskubide hezkuntza duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.

#### **ONARRIZKO KONPETENTZIAK**

Komunikatzeko konpetentzia(1.)

Ikasten eta pentsatzen ikasi (7.)

#### **EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK**

- Ogibideen hiztegia ezagutzen du.
- *Zerez, nondik-nora, norentzat* galdegaiak ulertzen ditu.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzen ditu.

#### **10. UNITATEA: UF! HAU NEKEA!**

**TENPORALIZAZIOA:** maiatzaren 25etik ekainaren 12ra.

#### **HELBURUAK**

- Urtaroen hiztegia lantzea.
- *Uf! Hau nekea!* komikiaren elkarrizketa irakurtzea
- *Hotz-bero* aurkako adjektiboak erabiltzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.

- *Zer gertatzen da?* espresioa egunero erabiltzea.
- *Gose-logura-egarri* kontzeptuak bereiztea eta zuzen erabiltzea.
- *Eta gero* egitura ulertu eta erabiltzea.
- Jolasaren arauak ulertzea eta jolastea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:
  - Zerbaiten balorazioa egitea.
  - Kezka adieraztea.
  - Zerbaiten informazioa ematea.
  - Denbora adieraztea.
- *Tximeleta* mendian kanta buruz ikastea.
- Ingurugiro hezkuntza zehar lerroa lantzea.

## EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK

Funtzioak eta esamoldeak	-Zerbaiten balorazioa egitea. -Kezka adieraztea. -Zerbaiten informazioa ematea. -Denbora adieraztea. -Hotz naiz!, Bero naiz!, Logura naiz!, Gose naiz!
Hiztegia	- <b>Urtaroak</b> : uda, negua, udazkena, udaberria, urtaroa. - <b>Eguneko momentua</b> : goiza, arratsaldea, eguerdia, gaua. - <b>Adjektiboak</b> : hotz-bero. - <b>Kontzeptuak</b> :logura, gose.
Gramatika edukiak	- <b>Egiturak</b> :zein?/ nolako?/ zer?/ nora?. - <b>Aditz-formak</b> :... eta gero, behar du, dago, gertatzen zaio, egiten du.
Irakurmena	-Komikia: <i>Uf! Hau nekea!</i> -Kanta: <i>Tximeleta mendian.</i>
Zehar lerroak	Ingurugiro hezkuntza.

### PROZEDURAZKOAK

- Urtaroen hiztegiaren lanketa.
- *Uf! Hau nekea!* komikiaren elkarrizketaren irakurmena.
- *Hotz-bero* aurkako adjektiboen erabilera.
- Baiezko eta ezezko perpausen ezaguera.
- *Zer gertatzen da?* espresioaren erabilera.
- *Gose-logura-egarri* kontzeptuen erabilera.
- *Eta gero* egituraren erabilera.
- Eguneroko beharretan hizkuntz funtzioen erabilera.
- *Tximeleta* kantaren memorizazioa.

## JARRERAZKOAK

- Taldeko elkarrizketetan arauetiko errespetua erakustea.
- Idazterakoan txukun eta argi egiten ahalegintzea.
- Besteen iritziekiko errespetua izatea.
- Ingurugiro hezkuntza duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.

## OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Komunikatzeko konpetentzia(1.)

Kultura humanistikoan eta artistikoan konpetentzia (6.)

Ikasten eta pentsatzen ikasi (7.)

## EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Urtaroen hiztegia lantzen du.
- *Hotz-bero* aurkako adjektiboak erabiltzen ditu.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzen ditu.
- *Tximeleta* kanta buruz ikasten du.

## 11. UNITATEA: AMETSETAN

**TENPORALIZAZIOA:** Oso zaila izaten da liburuko unitate guztiak lantzea, hortaz, 11. eta 12. unitateentzako ez dugu denborarik utzi. Taldearen lan egiteko erritmoa oso azkarra izatea eman daiteke, eta halako kasu batean, posible izan liteke liburu guztia bukatzea. Hala balitz, azken bi unitate hauek ere landuko genituzke.

## HELBURUAK

- Garraiobideen hiztegia lantzea.
- *Ametsetan* komikiaren elkarrizketa irakurtzea.
- *Presaka* irakurgaia irakurtzea eta ulertzea.
- *Nondik, zerez* galdegaiak ulertzea.
- *Ahal du/Ezin du* aurkako aditzak erabiltzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.
- *Astiro-azkar* kontzeptuak erabiltzea.
- Aditzak bereiztea eta zuzen erabiltzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:
  - Helburua adieraztea.
  - Zerbaiten berri ematea.
  - Zerbaiten informazioa eskatzea.
- *Kilometro bat oinez* kanta buruz ikastea.
- Ingurugiro hezkuntza zehar lerroa lantzea.

## EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK

Funtzioak eta esamoldeak	-Helburua adieraztea. -Zerbaiten berri ematea. -Zerbaiten informazioa eskatzea.
--------------------------	---

	-Lagundu!, Eskerrak!, Hau sustoa!, Ezin dut gehiago.
Hiztegia	- <b>Garraibideak</b> : tunela, zubia, autobidea, trenbidea, airea. - <b>Adjektiboak</b> : itxita, nekatuta. - <b>Kontzeptuak</b> : poliki-azkar.
Gramatika edukiak	- <b>Egiturak</b> : nondik?/ nola?/ zerez?/ zein?. - <b>Aditz-formak</b> : dabil, ahal/ezin du, irten, erori, heldu, sartu da, dago, doa.
Irakurmena	-Komikia: <i>Ametsetan</i> -Irakurgaia: <i>Presaka</i> . -Kanta: <i>Kilometro bat oinez</i> .
Zehar lerroak	Ingurugiro hezkuntza.

#### PROZEDURAZKOAK

- Garraibideen hiztegiaren lanketa.
- *Ametsetan* komikiaren elkarrizketaren irakurmena.
- *Presaka* irakurgaiaren irakurketa eta ulermena.
- *Nondik*, *zerez* galdegaien ulermena.
- *Ahal du/Ezin du* aurkako aditzen erabilera.
- Baiezko eta ezezko perpausen ezaguera.
- *Poliki-azkar* kontzeptuen erabilera.
- Aditzen erabilera. Umeei irudiak ordenan jarri behar dituztela esan, 1, 2, 3 eta 4 zenbakiak ipiniz.
- Jolasaren arauen ulermena.
- Eguneroko beharretan hizkuntz funtzioen erabilera.
- *Kilometro bat oinez* kantaren memorizazioa.
- Ateralditxo bat egin.

#### JARRERAZKOAK

- Oinarrizko hiztegiaren erabilpenean zehaztasuna eta propietatea erakustea.
- Talde lanetan parte hartzeko zaletasuna eta jarrera positiboa bultzatzea.
- Aurkezten diren lanetan argitasuna eta txukuntasuna agertzea.
- Ingurugiro hezkuntza duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.

#### OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Komunikatzeko konpetentzia(1.)

Kultura humanistikoan eta artistikoan konpetentzia (6.)

Ikasten eta pentsatzen ikasi (7.)

#### EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Garraibideen hiztegia lantzen du.
- *Nondik*, *zerez* galdegaia ulertzen ditu.
- *Ahal du/Ezin du* aurkako aditzak erabiltzen ditu.

- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzen ditu.
- *Poliki-azkar* kontzeptuak erabiltzen ditu.
- *Kilometro bat oinez* kanta buruz ikasten du.

## 12. UNITATEA: KUTUNA

**TENPORALIZAZIOA:** Oso zaila izaten da liburuko unitate guztiak lantzea, hortaz, 11. eta 12. unitateentzako ez dugu denborarik utzi. Taldearen lan egiteko erritmoa oso azkarra izatea eman daiteke, eta halako kasu batean, posible izan liteke liburu guztia bukatzea. Hala balitz, azken bi unitate hauek ere landuko genituzke.

### HELBURUAK

- Oporren hiztegia lantzea.
- *Kutuna* komikiaren elkarrizketa irakurtzea.
- Aurkakoak erabiltzea.
- Baiezko eta ezezko perpausak ezagutzea.
- *Hemendik-hortik-handik* kontzeptuak erabiltzea.
- Aditzak bereiztea eta zuzen erabiltzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntz funtzioak erabiltzea:
  - Helburua adieraztea.
  - Iradokizuna adieraztea.
  - Zerbaiten balorazioa eskatzea edo egitea.
  - Emateko eskaintza egitea.
- *Sardina bat* kanta buruz ikastea.
- Ingurugiro hezkuntza zehar lerroa lantzea.

## EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK

Funtzioak eta esamoldeak	-Helburua adieraztea. -Iradokizuna adieraztea. -Zerbaiten balorazioa eskatzea edo egitea. -Emateko eskaintza egitea. -Irabazi dut!, Galdu dut!, Badakizue!
Hiztegia	- <b>Oporrak:</b> sarea, txalupa, arraina, kobazuloa, irla, itsasontzia, amua, otarra. - <b>Kontzeptuak:</b> ur gainean-ur azpian, hemendik-hortik-handik.
Gramatika edukiak	- <b>Egiturak:</b> nork?/ nondik?/ zertarako?. - <b>Aditz-formak:</b> galdu, aurkitu, hartu, apurtu, du/dute, behar, balio du.
Irakurmena	-Komikia: <i>Kutuna</i> . -Kanta: <i>Sardina bat</i> .
Proposamen orokorra	Itsasoko horma-irudi handi bat egitea proposa daiteke.
Zehar lerroak	Ingurugiro hezkuntza.

## PROZEDURAZKOAK

